



3 KULTURA

**Txokoen desfilea eta antzerkia ostiralean**

Udako txokoeak bi aste bete zituzten ostiralean, bide erdia egin dute jada begirale eta gaztetxoek. Hori ospatzeko, taldeka mozorrotu eta kalejira egin zuten erdiguneko kaleetan zehar kantatu eta dantzatu Okendo plazaraino iritsi arte. Eguerdian, Antonio Mercero plazan, Udaletxe berriaren atzeko aldean, "Mr Frack" malabaristaren kaleko ikuskizunaz ikusteko aukera izan zuten.

4-5 UDALA

**Azterketa sozio-ekonomikoa aurkeztu du udalak**

Lasarte-Oriako Udalak azterketa bat egin du gure herriko egoera sozioekonomikoaren berri izateko, "Lasarte-Oria zenbakitan" izena du azterketa eta ostiralean aurkeztu zuten Villa Mirentxun. Udalak aurreratu duenez, urtero berrituko den azterketa izango da. Gainera, Lasarte-Oriako egoera ezagutu eta eragile ezberdinekin lan egiteko helburuak ezarriko dira.



Metalaren inguruan, nazioartean hainbat musika festival egiten dira: Sonisphere eta MetalFest esaterako, Ipar Euskal Herrian ere badugu Heletan urtero egiten den Euskal Herria Zuzenean jaialdi indartsua eta Lasarte-Orian berriz, Parapetasonik egiten da; aurten bigarren ezagun den metal eta rock'n'roll jaialdia.

2010ean Parapetasonic-en lehen edizioa egin eta 2011ko lehortearen ostean, larunbatean burutu zuten bigarren edizioa herriko metal-zale gazteek antolatuta.

Guztira, herriko zein inguruko zortzi talde aritu ziren Parapetoko oholtza gainean ahots urratuz eta gitarra kolpe sendoez ikusleak dantzan eta kantuan jartzen.

**Kontzertu sorta polita**

Zortzi kontzertu ikusteko aukera izan zen larunbatean, BeHaxeRoja eta Bloody Brotherhood donostialdeatik, Black Absinthe usurbildik, Blaka añorgatik, Two Mules and a Rainbow bilbotik eta azkenik, herriko Hilotz, Tamerlayn eta Bar Remigio taldeak izan genituen Parapetasonik festibalean.

Heavy eta rock'n'roll festibala izaki, ez zen bertsiorik falta izan eta Jimmy Henfrix, Bad Religion, The Beatles, Testament, Foxy Lady, Red House, Metallica eta halako talde ezagunen kantuek



Itxura polita zuen Parapetoko arratsaldean, jendea gustura aritu zen kontzertu desberdinez gozatzeko.

harrera itzela izan zuten publikoaren aldetik.

**Herriko taldeen maketak**

Lasarte-Oriako bi taldek, euren azken lanak herritarren aurrean erakusteko erabili zuten festibala.

Hala, Hilotzek euren "Hil ala bizi" azken laneko make-

tako kantu guztiak jo zituen eta Tamerlaynek "Aguila" maketa aurkeztu zuen. Bar Remigiok berriz, Bad Religion punk talde ingelesaren bertsoak jo zituen.

**Antolatzaileak oso kontent**

Balorazio oso positiboa egin zuten ekimenaren antolatzaile-

leek. Heavy eta Rock-aren inguruan herriko zein inguruetako gazte jende musikazalea bildu eta herrian giroa sortzea zuten helburu, eta hurbildu zen jendetza ikusita, lortu zutelara esan daiteke. Hurrengo urtean ea Parapetasonik festibalaz hirugarrenez gozatzeko aukerarik dugun.

**Bideo Lagunak**



Betiko zerbitzua gure aholkularitza onenarekin

**BEGIRATU GURE ESKAINTZAK!**

Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria • Tel.: 943 373134  
jose@bideolagunak.com • www.bideolagunak.com



Inguruko erakusketarik onena!



## Adituak dio



Sebastian Kerejeta

Oriatarra

Esan gabe doa herri bat ez dela eraikinez bakarrik osatzen, ezin bestekoa da bizilagunak sortzen duten giroa eta denok dugu eginkizun honetan zeregina, egunerokotasunean saiatu behar dugu hori lantzen. Hori horrela izanda ere, hainbat festa-giro, kultura, kirol, gizarte ekintzak eta abar lagungarriak dira herri-giro atsegin bat lortzeko. Adibide dira igaro berriak diren San Joan bezperako festa, eta zer esanik ez herriko San Pedro jaiak. Zirrara eragin zidan San Pedro bezperan Okendo plazan ikusi genuen ikuskizunak, zientoka herritar Oriako Sorgindantza dantzatzen inguru guztiak herritarrez estalita irria eta poza agerian zutela.

Oria ere, horren adibide da, bertan, Karmengo Amaren eguna ospatzen dugunez, bertako elizaren iragana, eta ospakizun horretan sortzen den giro atsegina aipatuko dut. Nahiz eta aurretik, Zelai Alde etxearen azpian behin beneko eliza antolatuta egon eta Orian bertan apaiza ere izan, 1940. urtean eraiki zen oraingo eliza. Bertan buru den Ama Birjinaren irudia eskultore kataluinar batek egina da. Uholdeak hondatuta bi urtean egon ondoren, 2004ko uztailaren 10ean berriz ireki zen konponduta, txukunduta eta dotoretuta.

Hainbat oriatarrek gogor salatu arren, zeuden eraikin eta altxor guztiak zilipurdika bota eta izkutatatu ondoren, Plazido Mujika oriatar ospetsua jaiotzen Baratzalde etxea barne, eliza bakarrik gelditu zen zutik.

Gaur Karmengo Amaren eguna, herria girotu eta alaituz trikitixa ibiliko da urteroko legez, kalez kale, eta Meza Nagusiaren ondoren, herri-hamaiketako eskainiko da Plazido Mujika plazan, eta hainbaten herrimina pixka bat leuntzeko ere balioko du. Lasarte-oriatar asko bildu ohi dira bertan egun honetan.

## Karmenak Orian

Askotan izan ditugu udako festak hizpide lerro hauetan baina kasu honetan eta Lasarte-Oria izenaren inguruko eztabaidan murgilduta gaudela, Oriako jaiak ekarri nahi izan ditugu gogora.

Orian Karmengo Ama Birginaren omenezko festak ospatzen dira. Egun hain modan dauden herritarrekin parte hartze bilerak garai batean ere izaten ziren eta hala erabaki zen adibidez Oriako festak uztailaren 16an ospatzea. Herritarrek aukeratu zuten egun hau bere jaiak ospatzeko eta hala egun da 1960. urtetik.

Ama Birgina honi festak lotzeko arrazoia kaperan dago, Oriako kaperak Karmengo Ama Birginaren omenez eginda dagoelako. Hala ere, kontutan izan behar da kaperak hau

Brunet familiak eraiki zuela 1940. urtean eta ordurarte San Pedrorra etortzen zirela oriatarrak. Oriak azken urteetan aldaketak jasan ditu, etxe berriek bizilagun berriak ekarri dituzte auzora eta honekin batera jaien antolaketari eustea zailtzen joan da. 90. hamarkadan jai batzorde gazte batek jaiak berreskuratzeko ahaleginetan egitarau oso baten alde lan egin zuen baina ahaleginak ahalegin, herritar gehienentzat Oriako festak meza eta ondorengo bazkarian geratu dira. Egungo oriatarrek Sanpedroak bizi dituzte benetako festak bezala. Gaur Orian ez dira garai bateko haur jolasak egongo ezta toka txapelketak edota gaueko berbenak, soilik meza eta bazkaria eta honetan ziurrenik, betiko bizilagunek parte hartuko dute.

## Hitz eta pitz

## Oriako jaietara joaten al zara?



Isabel Zuaznabar

Ezagutu ezagutzen ditut, baina ez naiz joan. Askotan aste erdian izaten zen Karmengo eguna, gainera Añorgan ere festak dira eta txikitan Añorgara joateko joera geneukan. Bokadilloarekin joaten ginen eta suak ere egoten ziren festetan. Hori bai, Karmengo egunean, Basaundira, izebaren baserrira joaten ginen bazkaltzera, eta gero han egoten ginen kantuan...



Maria eta Joanita Zuriarrain

Karmen egunean meza egiten zen Orian, baina festak guretzat sanpedroak ziren, oso onak, etxean baimena genuen, dantzan egin eta kalejiran etortzen ginen Oriatik. Oria Txikikoak gara baina 50 urte daramagu handik kanpo, Lasarten. Karmengo egunean mezatarra joaten gara eta lehen lagunek bazkaria egiten genuen, baina koadrila hori desegin da, batzuk hil egin dira...



Puri Golbano

Festa normalak ziren Oriakoak, musika egoten zen gauean, berbena txiki bat, toka, umeentzako jokoak... umeak txikiak zirenean beraiekin joaten ginen, baina gero jada ez. Haurrentzat gauzak egoten ziren eta bertako elkartearen ere egoten ginen. Azken urtetan ez gara joan Oriara, duela ia 40 urte Irurara joan ginen eta bizitzera. Sanpedrotan etortzen gara.



Nati Igartza - Asensio Lejardi

Ora in delat berrogei bat urte, garai hartarako, festa oso politak ziren Oriakoak eta joaten ginen. Musika, soinua, meza ostean harrija-sotzaileak eta beste egoten ziren. Lagunartean ederki egoten ginen. Ora in ere oinez joaten gara, biok, Ramonen meza entzun eta ondoren dagoena ikustera... Urrezko ezteiak ere Orian ospatu genituen seme-alaba eta bilobekin.

## Iruditan



1940. urteko azaroaren 6an inauguratu zen kaperak eta garaiko agintariak izan ziren Brunet familiarekin.

## Karmengo Andre Mari jaiak Orian

Orian 1960. urtean herritarren bozkak tarteko erabaki zen Karmengo jaiak ospatzea. Ez da ohitura zaharra baina oriatarren artean jai hauek mantentzeko ahalegina garrantzitsua izan da batez ere azken urteetan. Kaperak 1940. urteko azaroaren 6an inauguratu zen eta berez Bruten familiarekin aginduz eraiki zen. Hondarribiko Sagarzazu arkitektoak egin zuen lana eta hasiera hartan kaperak propioa izan zuen. Karmengo Ama birginaren omenezko kaperak egun aurretik, oriatarrek San Pedro elizara joaten ziren meza entzuztera.

## Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak

Lasarte-Oriako Udala  
Euskara BatzordeaEUSKO JAURLARITZA  
KULTURA SAILAGFAko Kultura eta  
Euskara Departamendua

## KULTURA

# Antzerkia eta txokoak kalean

Kaleko ikuskizuna ekarri zuen Okendora "Mr Frack" malabaristak

**Kultura herritarrei hurbiltzeko helburuarekin, uztailean zehar zinema eta antzerkia kalera atera ditu kultura sailak eta esaterako ostiral eguerdian itxura ederra hartu zuen Okendo inguruak: Xabier Larreak "Mr Frack" malabaristak ikuskizun ederra eskaini zuen Antonio Mercero plazan, Udaletxe berriaren atzeko partean eta bertan izan ziren udako txokoetan dauden haurrak ere malabaristaren trebetasunez gozatu.**

Udako txokoek bi aste bete zituzten ostirailean, hain juxtu, ekimenaren erdia eta egun berezia izan zuten bertan dabilizan haurrek.

Taldeka mozorrotu eta kalejira egin zuten erdiguneko kaleetan zehar eta eguerdian Okendo plazaren atzeko partean, Udaletxe berriaren atzeko aldean, "Mr Frack" malabaristaren kaleko ikuskizunaz ikusteko aukera izan zuten.

Xabier Larrea malabaristak, pilotak, mazak, txapelak, diaboloa eta beste erabili zituen malabareak egiteko eta ederki pasa zuten Txokoetan dabilizan haurrak, artistaren abildade eta jokoekin.



Lasarte-Oriako erdiguneko kaleetatik barrena ibili zen Udako txokoetako haurren desfile koloretsua.

Emanaldi umoretsua izan zen, zirkuko giroa ekarri zituen Lasarte-Oriara.

Ekintza Udalak antolatatu du, uztailean kultura kalera ateratzeko antolatu duen egitarauaren barruan. Ostiral eguerdian jarri eta Udako Txokoetan direnei zein nahi zuten haur guztiei antzerkiak gozatzeko aukera eskaini die.

Kale antzerki ikuskizunak eta zinema eskainiko dira Okendo plazan uztailean zehar. Ostegunean "Extraterrestre" filma eskainiko da gaueko 22:00etan.



"Mr Frack"-en malabareekin ederki gozatu zuten herriko haurrek.

## KIROLA

## Santa Ana Pala txapelketako finalerdiak asteazkenean

Santa Ana Pala txapelketako lehen fasea amaitzeko jardunaldi bat geratzen bada ere, antolakuntzak finalerdietako norgehiagokak jakinarazi ditu.

Finalerdiak asteazkenean, uztailean 18an, jokatuko dira Loidi-Barrengo pilotalekuan, 18:00etatik aurrera.

Hauetan lau bikote izango dira aurrez aurre, Santi eta Bernaitzek Iñaki eta Joserra izango dituzte arerio eta partida hau amaitzean, Xabi eta Mikelek Iñigo eta Carlinesen aurka jokatuko dute.

Bi partida hauetan jokotako izango dira Santa Ana eguneko final handian egoteko txartelak.

Honetaz gain, ohartzarazten dugu, ostirailean argitaratutako kirol agenda oker zegoela eta lehen faseko azken partidak astelehenean eta asteartean jokatuko direla.

## UDALTZAINAK

## Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte. Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

## Jazz, blues eta funk doinuak Kultur Kale Zikloaren barnean

Xpressionek-ek bi kontzertu antolatu zituen ostiral eta larunbatean Kultur Kale Zikloaren barnean.

Lehena, Tutti Frutti Project taldearen kontzertua izan zen. Printzipioz Jalgiko terrazan izan behar zuen kontzertua barrura pasa zuten, eguraldi kaxkarra tarteko.

Hala ere, jende ugari bildu zen Jalgira kontzertua zuzenean ikustera eta asko gozatu zuten jazz estiloko musika entzunez trago edota pintxo batzuz hartzen zituzten bitartean.

Boskoteak Bateria, kontrabaxua, gitarra, tronpetea eta saxo banaz, herritarren belarriak gozarazi zituzten solo eta inprobisazio tarte luzei esker eta txalo zaparradak jasotzen zituzten bakarkako



Zuzeneko interesgarriak eskaini zituzten bi taldeek, jazz Tutti Frutti Project taldearen eskutik Jalgin eta funk eta bluesa The Romanticos-en eskutik Abend-en.

lanak amaitzean.

### The Romanticos, Abend-en

Asteburuko bigarren kontzertua berriz, blues eta funk estiloak uztartzen dituen "The Romanticos" taldearena izan

zen.

Hauek ere musika estilo propioa zutela erakutsi zuten, eurek sortutako kantuez gain, 60 eta 70. hamarkadetako funk-aren doinu fusionatuak eskaini baitzituzten Abend-



eko agertokian.

Baxua, bateria, gitarra eta teklatuaren doinuek laguntzaz, dantzan jarri zituzten kontzertua ikustera joan ziren ikusle guztiak.

Beste behin ere, musika

kontzertu interesgarriak izan genituen Lasarte-Orian, eta Parapetasonik festibalarekin batera, asteburuan musikaz gozatzeko parada ezin hobea izan dute herriko musikazaleek.



## IGERIKETA..

Haitz Mitxelena Igerilaria

# “Horrelako denboraldia egitea ez nuen inondik espero”

Uztailaren 25etik 27ra Terrasan izango da Espainiako txapelketan lehiatzen

**Gipuzkoa eta Euskadiko txapelketa, Ordiziako nazioarteko txapelketa, Espainiako Gazteen Neguko txapelketa eta beste hainbat lehiaketetan parte hartu du aurten Haitz Mitxelena gazteak. Denboraldi paregabea egin du eta bere markak hobetuz joan da denboraldi osoan zehar. 200 m. tximeleta proban Espainiako txapelketarako txartela lortu zuen eta 100 m. tximeletan gertu ibili da.**

Nerea EIZAGIRRE

**B**uruntzaldea Igeriketa taldeko mutilak primeran ibili dira aurten bai neguko, baia Udako txapelketetan ere. Horieta bat izan da Haitz Mitxelena. Harekin bildu gara denboraldiari buruz hitz egiteko.

## Noiz hasi zinen igeri egiten?

Lau urterekin hasi nintzen igeri egiten eta zazpirekin sartu nintzen elkarteetan. Txikia nintzanean hankan arazo bat neukan eta ongi egin zidan. Gerora gustatzen zitzaidalako jarraitu nuen.

## Nolako denboraldia izan da?

Denboraldi gogorra izan da aurtengoa, lehengo urtean baino gogorragoa izan da baina merezi izan du.

## Izan ere, maila aldaketa izan duzu, ezta?

Bai, orain promesa mailan lehiatzen naiz Euskadiko mailan eta maila absolutuan

Espainian. Hurrengo urtean ere horrela izango da.

## Beraz, maila artean desberdintasun handia dago...

Juniorretatik absolutura jauzi handia dago. Horregatik entrenamenduak gogortu behar izan ditugu. Baina merezi izan du.

Honetaz gain, Espainia mailan gehienak profesionalak dira

eta oso zaila da haien mailara egotea.

## Denboraldi hasieran aurreikusten al zenuten marka hauek egitea?

Nik ez nuen espero horrelako denborak egingo nituenik.

200 m. tximeleta proban horrela ibiliko nintzela espero nuen.



Baina 100 m. tximeletan ez nuen uste minututik jaitsiko nintzenik. Kristona izan zen. Harrituta geratu nintzen. Niretzat ezusteko handia izan zen.

## Iaz Espainiako txapelketan izan zinen lehengoz...

Oso esperientzia polita izan zen. 200 tximeleta proban 2 minutu 15 segundu markarekin joan nintzen. Zoragarria izan zen.

Orain dela 4 urte, Euskadiko txapelketetara joateko prestatzen nintzen eta justu-justu ibiltzen nintzen.

Borja etorri zenean aldaketa egon zen eta horren ondorioz, iaz Espainiko txapelketara joatea izugarria izan zen.



Haitz gogor ari da entrenatzen Espainiako txapelketan lan ona egiteko.

## Aurten ere arerio berdinak izango dituzu, beraz?

Bai horrela dat baina asko hobeto dudanez postu batzuk igotzea espero dut.

Nire igerileku luzeko marka jaitea dut helburu txapelketa honetan. 2 minutu eta 9 segundu baino gutxiago egin nahi ditut.

## Eta aurten Espainiako txapelketarako beste markarik egin al dezakezu?

Ez, ez dago aukerarik. Hurrengo urtean izan behar ko du.

Eta orduan, 100 metro tximeletako marka gutxienekoa ere lortzea espero dut. Hori izango da muga.

## Aurtengo denboraldira bueltatuz, Ordiziako nazioarteko txapelketan izan zinen lehian.

Konpetentzia gutxi zegoen eta horregatik sartu nintzen finalean.

Eta horrelako nazioarteko txapelketako finalean egoteak ilusio eta zirrara handia sortzen du.

## Baliagarri dira horrelako txapelketak esperientzia lortzeko?

Era honetara, lehiaketetan esperientzia hartzen duzu. Guretzat pausu bat aurrera egitea da.

## Errelebueta ere parte hartzen duzu.

Bai, 100 m. tximeleta eta 50 m. tximeleta egiten ditut errelebueta.

## Igeriketa banakako kirola dela

## uste dute askok.

Buruntzaldea IKT-n oso ondo eramaten gara. Bazkariak, irteerak, eta abar egiten ditugun taldean.

Kirol individuala dela pentsatzen duena gaizki dabil. Indibiduala txapelketetara joaten zarenean emozioa dago. Baina errelebueta pentsatzen duzu: "nik ondo egin behar dut, baina ez bakarrik niregatik, taldearengatik baidzik". Eta orduan emozioa askoz handiago da.

## Horrelako markak egiteko egunero izango duzu entrenamendua...

Bai, hala da. Gainera, entrenamenduak oso gogorrak dira. 200-eko eritimoak egin behar ditut eta asko nekatzen du.

Beroketa egiten dugu eta gero eritimoa ariketetan sartzen gara. Horieta asko nekatzen zara. Egunero egiten dugu eta egin beharreko metro kopurua jaisten dugu, baina asko nekatzen du.

## Tximeleta da lantzen duzun estilo bakarra?

Tximeleta bakarrik ez, 400 m. libreetan ongi ibiltzen naiz baina aurten gutxitan egin dut proba hori. Bizkar eta bular

## Igeriketan estilo teknikoena al da?

Ez, bular estiloa askoz zailago da teknikari begiratuta.

## Baina tximeleta ikusgarriena dela esan daiteke, ezta?

Bai, horrela da eta jende askok egiten duela ere esan behar da.

— Agenda —

Osteguna 19, Okendo plazan, 22:00etan



Estralurtarrak gure artean

Udako Zine zikloaren barruan, Nacho vigalondo zuzendariaren "Extraterrestre" filma eskainiko dute, Okendo zinema taldearen eskutik. Filmak herritarrek estralurtarren inbasio baten aurka nola jokatu zuten erakusten du eta H.G. Wells idazleari eta haren denbora makinari egindako omenaldi interesgarria da. Gaztelaniaz.

**Azoka**  
OKENDO PLAZA  
Igandea 22

Santa Ana egunaren ospakizunen barruan, artisau azoka egingo da.

**Erakusketa**  
JALGI KAFE-ANTZOKIA  
Uztaila osoan zehar

Estudio del Pintor marrazki eskolako ikasleen erakusketa.



Lasarte-Oria

**Antzerkia**

OKENDO PLAZA

Ostirala 20, 22:00etan

"Carbon Club" kale antzerkia.



Osteguna 26, 22:00etan

Urtean zehar herrian gertatu denaren laburpena modu ironiko eta komikoan Santa Ana eguneko parodian.

**Ikastaroa**

SASOETA ALDEA

Larunbata 21, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzako malabaren tailerra egingo dute.



ELIZATZE PLAZA

Larunbata 28, 10:00etan

8 eta 14 urte bitarteko gaztetxoentzat tailerra egingo dute. Materialak birziklatuz egin daitezkeen gauzak ikasiko dituzte.

**Jaiak**

ORIAKO AUZOA

Astelehena 16

Karmengo amaren jaiak ospatuko dituzte oriatarrek.

ERDIALDEA

Osteguna 26, eguerdia

Santa Ana eguneko ospakizunak egingo dira. Brigitarren plazan luntxa eta Santa Ana karkaban dantza egingo da.



Andoain

**Jaia**

KARRIKA AUZOA

Ostirala 20-Igandea 22

Karriko jaiak ospatuko dituzte andoaindarrek.

Urnieta

**Ikastaroa**

GAZTELEKUA

Astelehena 16- Ostirala 20, 9:30ean

Gipuzkoa Argazkitan ikastaroa egingo da Gipuzkoan zehar. Uztailaren 16an, Zumaiara egingo da txangoa; 17an, Hondarribiara; 18an, Donostiara; 19an, Pasai Donibanera eta 20an, amaiera Festa izango da.

— Herritarren txokoa —

**Galdutako txaketa beltza**

Sorgin dantzako azken entseguaren ondoren, txaketa beltz bat aurkitu zen Landaberri BHLko patioan.

Ttaku kultur elkarteak bulegora hurbildu dadila jabea hau eskuratze-ko.

**Galdutako gauzak**

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, betaurreko graduatuak eta eguzkitako betaurrekoak.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

**Hirigintza saila**

Lasarte-Oriako udalak gogorarazi nahi du Obrak eta Hirigintza sailaren zerbitzua publikoarentzat irekita dagoela Ganbo Kaleko 1. zenbakian.



**Santa Ana parodia**

Ttaku kultur elkarteak urteko antolatzen duen Santa Ana parodiako entseguak hasiko direla jakinarazten du.

Gaurtik uztailaren 24ra, 19:00etatik 21:00etara Manuel Lekuona kultur-etxean egingo dira entseguak.

Parodian parte hartu nahi duten herritarrek entsegu hauetara hurbiltzea besterik ez dute eta eginkizunen bat emango diete.

Bestalde, Santa Ana egunean Ama brigitarren komentuan luntxa egiten dela gogorarazten du. Honetan, herritar guztiek parte hartu dezakete.

— Haurren txokoa —

**Aurki itzazue zortzi hegaztiren izenak**

A	H	O	A	P	H	K	Y	Z	R	P	A	H	F	J
M	K	A	I	O	A	K	A	H	C	E	Q	R	M	L
E	M	W	R	R	W	Y	O	L	B	G	R	Y	R	
V	V	T	R	G	H	C	P	E	S	Z	B	P	J	Q
T	E	U	O	Z	X	D	B	N	A	U	N	T	A	N
O	Y	N	G	J	A	Y	F	O	Z	A	N	I	Y	T
N	R	W	N	R	X	T	M	T	F	S	R	S	M	F
Q	S	W	A	Q	Z	I	A	U	X	R	Y	I	K	G
I	L	N	X	P	H	N	D	H	O	T	B	I	R	H
B	E	S	T	Q	I	V	W	G	A	K	I	A	J	M
Y	U	P	N	K	X	D	A	B	J	X	I	H	J	C
H	W	A	A	Q	Q	L	A	K	W	O	J	L	U	Q
V	P	R	X	D	I	P	K	Q	E	K	Y	I	C	M
C	A	N	T	O	R	C	H	I	T	J	D	U	V	W
L	F	A	C	J	F	F	M	C	F	M	Z	L	B	V

AHATA  
BELEA  
BUZTANIKARA  
ENARA  
KAIOLA  
OILAGORRIA  
TXANTXANGORRI  
USOA

euskal.info

**Bazenekien...**

...erlek kolore horia, urdina eta txuria desberdintzen dituztela. Gorria ez dute ikusten, eta berdea, horia eta urdina nahasten dituzte.

**Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:** Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Landaberri ikastolako 3. zikloko ikasleak

Aitor Fernandino Aktorea

# “Txikitatik aktore izan nahi nuen”

Aitor Fernandinek aspaldi aldatu zuen Lasarte-Oria Bilbogatik baina lehen aldiz bere herrian antzeztu ondoren, esperientzia errepikatu nahi du

*Aitor Fernandinek eskolan garatu zuen antzezpenerako zaletasuna. Urtero eskolaz kanpoko ekintza ugari egiten zituen eta aldatzea gogoko zuen baina bazen ikasturtero aukeratzeko aukera, antzerkia. Ordurako erabakita zeukan aktore izaten saiatuko zela. Berriki Deabru Beltzak taldearen baitan “The Wolves” ikuskizuna eskaini zuen Okendon. Dagoneko herrira bueltatzeko gogo dauka.*

Maider AZURMENDI

Lehen aldiz bere herrian antzeztu zuen Deabru Beltzak taldearekin Aitor Fernandinek. “The Wolves” ikuskizuneko aktoreetako bat da Aitor. Lasarteoriatarra berez, Bilbon bizi da aspalditik. Bertan bere interpretazio ikasketak burutu eta antzerki munduko hainbat ekimenetan parte hartzen du. Bere aurpegia ezaguna egin da azkenaldian telebistarako egindako iragarki bati esker.

**Herrian izan zinen Deabru Beltzak-en “The wolves” ikuskizunarekin. Aspalditik zara taldeko kide?**

2003. urtean hasi nintzen beraiekin lan egiten umeentzat egindako antzeztan batean.

Ondoren, 2011an berriro deitu zidaten “The Wolves” kale antzerkian parte hartzeko eta hauxe da beraiekin bigarren urtea. “The Wolves” antzeztanaz gain, “Les tambours deu feu” lana antzezten ari gara Euskal Herrian eta European zehar.

**Zer moduz antzezten da zure herrian?**

Berezia izan zen niretzat Lasarte-Oria lan egitea. Antzerkia ikastera joan nintzenetik ez nuen inoiz nere herrian, antzezteko aukerarik izan eta egia esan gogoia neukan.

Ikusleen artean jende ezaguna ikusi nuen Okendon plaza eta niretzako oso antzeztan ezberdina izan zen. Benetan polita eta berezia.

**Askotan bueltatzen al zara herrira? Manuel Lekuona kultur etxeko aretoan antzezten egon al zara?**

Bai noski, herrira askotan etortzen naiz, lagun kuadrilla eta familia asko herrian daukat, baina ez lan egitera. Hauxe izan zen lehenengo esperientzia.

Kultur etxeko aretoan

egonda nago baina institutoko antzerki taldearekin. Aktore profesional bezala ez dut oraindik Manuel Lekuonako oholtzan antzeztu eta egia esan laster aukera izatea gustatuko litzaidake.

**Antzerkian lan egiten duzute batez ere. Zer dauka antzerkiak zinema edo telebistak ez duena? Antzerkia al da gehien gustatzen zaizuna?**

Bueno, antzerkian egin dut lan batez ere. Zinema edo telebista ez dut gehiegi ezagutzen. Hala ere, lan egiteko moduak oso ezberdinak dira. Antzerkian aktore lanari garrantzia handia ematen zaio, lana beraren pisua aktoreek eramaten dugulako.

Telebistan edo zinemaren bestelakoa da. Hauetan jende asko dago inguruan lan egiten argi edo soinu teknikiariak, zuzendariak, produktzioko jendea... eta gauza txiki askotara egon behar zara erne. Politia da baita ere, baina ezberdina, gutxiago ezagutzen dudalako agian.

**Horretaz gain aipatzekoa da azkenaldian telebistan ikusten zaitugula iragarki batean. Jendeak kaletik ezagutzen al zaitu?**

Ez orain arte behintzat inork ez nau kalean gelditu ezagutzen nauela esateko. Orokorrean lagunak, familia edo ezagunak dira ezagutzen nautenak eta batzuk ez dira konturatu ere egin ni naizela iragarkian agertzen dena.

Bizarrarekin eta trajez jantzia agertzen naizenez badi-rudi despistatu ditudala. Telefono konpainia bateko kanpaina da egin dudana.

**Antzerkia ikastera joan nintzenetik ez nuen inoiz nire herrian antzezteko aukerarik izan eta egia esan gogoia neukan. Egun berezia izan zen.**



**Telesailetan, laburmetraietan,... Aktoreek medio guztietara moldatzeko beharra al duzue egun?**

Bai noski. Antzezteko lanbide bat da eta gero eta gauza gehiago egiten jakin, orduan eta lan gehiago izango duzu. Ez hori bakarrik, antzerki irakasle bezala lan egin behar da edo aurkezle bezala... Lan-txo txiki asko dago antzerkiaren munduan eta denetara moldatu behar da.

**Zertan ari zara lanean momentu honetan? Proiektu jakin batean murgilduta al zaude?**

Deabru Beltzak taldearekin momentu honetan bi antzeztan lan egiten ari naiz. Horretaz gain, Txalo antzerki taldearekin lan egiten dut “Ipuinaren bila” ume antzeztan.

Hurrengo denboraldiari begira, dagoeneko proiektu batzuk lotuta ditut. Beste bi antzeztanetan parte hartuko

duz, umei zuzendutako beste batean eta helduentzako bestean.

Horretaz gain, AteJoka antzerki taldea sortu berri dugu hainbat lankideren artean eta umeentzako antzeztan berri baten ekoizpenean guztiz murgilduta gaude.

**Bilbon bizi zara. Aktore baten antzerki erakargarriagoak al dira hiri handiak?**

Ez dakit erakargarriagoa den. Ni Getxoko Antzerki Eskolara joan nintzen interpretazio ikasketak egitera eta ondorioz, Bilbon bizitzen geratzea erabaki nuen. Lanagatik hasiera batean eta hirian gus-tura nagoelako orain.

Egia esan, aktore baten-tzat erakargarriagoak izan daitezke hiri handiak. Azken batean hauetan kultur giro handiagoa eta anitzagoa dago. Saltsa horretan murgiltzen zara pixkanaka eta mugimendu hori gabe bizitzea faltan botako nuke.

**Txikitatik nahi izan duzue aktore izan?**

Bai, txikitik eskolaz kanpoko ekintza asko egiten nituen, saiatzen nintzen urtero ezberdinak hautatzen. Baina antzerkian beti, ikasturtero

ematen nuen izena, gehien disfrutatzen nuen ekintza zen. Urteekin antzerkia egiten jarraitu nuen eta institutoko antzerki taldean egon nintzen Mertxe Rodriguez eta Paki Caballero irakasleekin.

Orduan, garai horretan aktorea izango nintzela erabaki nuen. Behintzat aktore izaten saiatu nintzela...

**Zer esango zenieke aktore izatearekin amesten duten gaztekoiei?**

Aktore lana polita dela eta aspertzea zaila dela esango nieke. Norberaren irudimena martxan jartzeko lanbide ezin hobea da aktorearena zalan-tzarik gabe.

Baina alderdi ez hain politak ditu aktorearen lanak. Batzuetan frustrazio asko jasotzen ditu aktoreak, proba asko egin behar dira, kasting askotan parte hartu... Kasu horietan momentu gogorak bizitzen dira askotan, ez da dena hain erraza eta polita lanbide honetan. Kontutan izan behar dute lana bera ziurtasun gutxiokoa dela ere.

Baina azken hau egun lanbide guztien inguruan esango dute zoritxarrez. Ez da bakarrik aktoreen arazoa. Ilusioa aktore izatea bada behintzat, saiatzeak merezi du.